

Maria Jesus Garate: "Klima aldaketaren inguruan gehiegi hitzegiten dugula esango nuke"

2050. urtean zumaia nola ikusten duen galdetuko diogu Oikiako guraso bati, Maria Jesus Garateri.

1. Ibaian bainatu ahal izango gaitezke?

Nik uste dut kutxadurakudeatzen ari garela eta posible izango dela eta gustatuko litzaidake.

2. Koronavirusak jarraituko ahal du?

Nire iritziz, bai baina hartu ditugun bakunen eta neurrien ondorioz arinago pasatzeko aukera izango dugu.

3. Urak Zumaia estaliko ahal du edo kontsekuentsiak izango dira?

Esango nuke, kontsekuentsiak izango direla gure gurasoei entzunik hainbat eta hainbat lekuetan etxeak eraikita ikusten ditugulako. Gustiz estalita herria ez baina kontsekuentsiak bai.

4.Klima aldatuko ahal da, usten badazu aldatuko dela zergaitik pentsatzen duzu izango dela?

Aldaketak nire iritziz izango dira, gurasoei ere entzuna dut beti igen dela klima aldaketa baina gehiegi hitzegiten dugula esatera ere ausartuko nintzateke.

Lehen ere, bero handiak izaten zirelako eta uholde handiak ere izaten zirelako.

5.Zumaia eta Getariako bide gorria egingo dutela uste duzu? Eta Arruara?Eta Oikiara?

Zumaia eta Getaria artekoa ez dut uste gainera esango nuke ez dagoela behar handirik ere. Arruara, nahiko bideratuta dagoela uste dut eta Oikiara, gustatuko litzaidake baina zaila iruditzen zait.

6.Oikiak independentzia lortuko ahal du?

Oso zaila ikusten dut, Oikiarra izanik asko gustatuko litzaidake baina zaila da.

7.Dendetako prezioak asko igoko ahal dira? Eta denda txikiak jarraituko ahal dute?

Prezioak igoko direla uste dut eta denda txikien jarraipena gaur egungo bizimoduakin ez dut uste. Gure ardura da biztanle izanik denda txikietan erostea irekita mantentzeko.

8.Nahiko petroleo egongo ahal da denentzat?

Espero dut baietz, alternatiba asko sortzen ari baitdira eta hauek erabiltzen baditugu behar beharrezkoa dutenentzat egongo da petroleoa.

9.Gerrarik egongo ahal da? Eta beste pandemiarik egongo ahal da?

Ez da gustagarria gerra egotea, baina beti egon izan da gerraren bat eta pentsatzen dut besteren bat ere egongo dela. Pandemiaren aldetik ere berdina esango nuke.

10.Euskara hitz egiten jarraituko ahal da Zumaian gaur egungo moduan?

Nik uste dut baietz, gazteak asko entzuten baidira euskaraz eta beraiek baitdira etorkizuna.